

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Barne-sustapenerako eskaintza hau onestea: Herritarren Segurtasunaren Saileko Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko bi ofizialorde-lanpostu eta zazpi kabo-lanpostu

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 1ean egindako ohiko bilkuran onetsi du Herritarren Segurtasunaren Saileko Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko bi ofizialorde-lanpostutarako eta zazpi kabo-lanpostutarako barne-sustapenerako eskaintza.

Kontuan izan da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 16. artikulua — apirilaren 13ko 7/2007 Legea — xedatzen duenez, karrerako funtzionarioek lanbide-sustapena izateko eskubidea dutela, eta 18. artikuluan ezarritakoaren arabera barne-sustapena egiteko hautatze-prozesuetan berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalak errespetatuko direla, baita aipatutako legearen 55. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoak ere.

Kontuan izan da 6/1989 Legearen 69.2.c artikuluan jasota dagoenez funtzionarioek administrazio-karrerarako eta barne-sustapenerako eskubidea izango dutela. Lege beraren 46. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da lanpostuak betetzeko modua, eta 48.2 artikulua dioenez, behin-behineko lan-izendapena duten funtzionarioek, egoera horretan dauden bitartean, derri-gorrez parte hartu beharko dute beren kidego edo eskaletako lanpostuak betetzeko deitutako lehiaketetan.

Kontuan izan da Euskal Funtzio Publikoaren Legeak xedatzen duenez hornikuntza- eta sustapen-eskaintzak dagokien lurralde historikoaren aldizkari ofizialean argitaratuko direla foru-aldundietarako edo toki-korporazioetarakoak direnean.

Erabaki da:

— Barne-sustapenerako eskaintza hau onestea: bi ofizialorde-lanpostu — eskala operatiboa; C1 (C) taldea; titulazio-betekizuna: 300; Herritarren Segurtasunaren Saila; hizkuntza-eskakizuna: 2.a, derrigortasun-datarik gabe — eta zazpi kabo-lanpostu — eskala operatiboa; C2 taldea; titulazio-betekizuna: 200; hizkuntza-eskakizuna: 2.a (bi lanpostuk derrigortasun-data dute) —; lanpostu guztiak Herritarren Segurtasunaren Saileko Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzukoak.

Gasteizen, 2019ko martxoaren 4an

Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkaria
JAIONE AGUIRRE LÓPEZ DE ARAYA